



ZIZURKILGO UDALA

EZ OHIKO OSOKO BILKURARAKO
DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurarako deitzen dizut:

Eguna: 2013ko urriaren 7a, astelehena

Ordua: 19:00

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO
EXTRAORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: 7 de Octubre de 2.013, lunes

Hora: 19:00

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNEKO AZTERGAIAK

1.- “HERRIRA” MUGIMENDU
SOZIALAREN AURKAKO OPERAZIO
POLIZIALAREN AURREAN, BILDUREN
MOZIOA.

ORDEN DEL DIA

1.- MOCION DE BILDU ANTE LA
OPERACIÓN POLICIAL CONTRA EL
MOVIMIENTO SOCIAL “HERRIRA”.

Zizurkil, 2013ko urriaren 3an.

Alkatea.

Zizurkil, 3 de Octubre de 2.013

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2013ko URRIAREN 7an
EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO
BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION DE PLENO
EXTRAORDINARIO CELEBRADA EL
DIA 7 DE OCTUBRE DE 2.013**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA / ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Eva Usandizaga Mujika (Bildu)

Aitor Sarasua Arruti (Bildu)

Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)

Aratz Alkorta Irazusta (Bildu)

Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.)

Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.).

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamahiruko urriaren zazpiko hamazazpi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Aritz Esnaola Arruti (Bildu), Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu), Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu) eta M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- “HERRIRA” MUGIMENDU
SOZIALAREN AURKAKO OPERAZIO
POLIZIALAREN AURREAN, BILDUREN
MOZIOA.**

Aurkeztutako Mozioa Akta honen I Eranskinean ikusi daiteke.

E.A.J.-P.N.V.k adierazi du Mozioaren aldeko bozka emango duela, bertako zati batzuekin ados ez egon arren, mozioaren funtsarekin ados

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día siete de Octubre de dos mil trece, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Aritz Esnaola Arruti (Bildu), Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu), Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu) y M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- MOCION DE BILDU ANTE LA
OPERACIÓN POLICIAL CONTRA EL
MOVIMIENTO SOCIAL “HERRIRA”.**

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo I del presente Acta.

E.A.J.-P.N.V. manifiesta que va a votar a favor de la Moción, ya que a pesar de no estar conforme con alguna de sus partes si lo está en



ZIZURKILGO UDALA

daudelako. Jardun hau ekintza judizial modura estali nahi izan den erabaki politiko bati dagokio eta, atxilotutako lagun guztiak aske dauden arren, salaketa dute berain gain, horrek beraientzat dakarrenarekin, eta, gainera, Herrira mugimendua legez kanpo geratu da egitez.

P.S.E.-E.E. /P.S.O.E.k adiereazi du botere judiziala izan dela jardín duena. Sinesten du botere banaketa eta errespetatu egiten du justiciaren jardura. Izan ere, jardín bada horretarako nahiko arrazoi dituelako da. Bere bozka Mozioa onartzearen aurkakoa izando da, baita ere Euskara hutsez aurkeztu dutelako.

Ondoren aurkeztutako Mozioa onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 6 (5 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V. rena)
- Aurkako botoak: 1 (1 P.S.E.-E.E. /P.S.O.E.rena)
- Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzarrak, botoen gehiengoz, onartzen du aurkeztutako Mozioa.

Beste aztergairik gabe, eta hamazazpi orduak eta hogei minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.



el fondo de la misma. Esta actuación corresponde a una decisión política que se ha querido camuflar con una acción judicial, y a pesar de que todas las personas detenidas están en libertad, continúan imputadas, con lo que ello supone para los afectados, y además el movimiento Herrera queda de hecho ilegalizada de facto.

El P.S.E.-E.E. /P.S.O.E. manifiesta que ha sido el poder judicial el que ha actuado. Cree en la separación de poderes y respeta la acción de la justicia ya que si se ha actuado es porque ésta tiene razones suficientes para ello. Su voto será contrario a la aprobación de la Moción debido también a que ésta ha sido presentada sólo en euskera.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 6 (5 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.)
- Votos en contra: 1 (1 del P.S.E.-E.E./P.S.O.E.)
- Abstenciones: 0

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y veinte minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



ZIZURKILGO UDALA

I ERANSKINA -- ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA

2013 URR. - 3

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia 1097

MOZIOA

Pasa den astelehenean, Auzitegi Nazionalaren aginduz, Herrira mugimendu sozialaren aurkako operazio poliziala burutu eta hamazortzi euskal herritar atxilotu zituen Guardia Zibilak. Iraganeko gertakariak ziruditenak errepikatu ziren tamalez gure herrietako kaleetan.

Egoera berri bat ireki da Euskal Herrian bereziki ETA erakundeak behin betiko su etena iragarri zuenetik. Aitzitik, PPren gobernuak hasieratik uko egin dio errealitate berri honi eta gatazka behin betikoz konpontzeko dagoen aukerari muzin egin dio.

Are gehiago, gatazka armatuaren baitan sortutako estatu estrategia eta baliabide guztiak bere horretan dira. Euskal presoen eskubideak ez errespetatzeaz gain, gure herrian oinarritzko askatasun demokratikoak oraindik orain ez dira aintzat hartzen. Egoera horien baitan kokatu behar da hain zuzen Herriraren aurka Auzitegi Nazionalak burututako operazioa.

Euskal presoen euskal herriratzearen eta euren eskubideen aldeko gehiengo sozial, sindikal eta politikoa dago gure herrian eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako jarreratik abiatuta, Herriraren eta atxilotutako hamazortzi kide horien lana, aipatu gehiengo sozial horri begirako ekimenak eta elkarguneak eskaintzea zen. Hau da, giza eskubide guztien errespetuan oinarrituz, gehiengo baten aldarrikapenaren alde egitea.

Burututako operazio polizial honek hain zuzen lan hori oztopatzea du helburu, gehiengo sozial, sindikal eta politiko horren aldarrikapena kaleetatik ateratzea, ezkutatzea. Giza eskubideen aldarrikapena dena kriminalizatzea. Eta unea ere ez da kasualitatea, hain zuzen ere Estrasburgoko Epaitegiak betirako kartzelaratzeari ezartzen duen doktrinaren epaia publiko egitera doanean. Konponbide prozesu batek guztion ekarpenak eskatzen dituenean, PPren gobernuak, iraganeko errezetekin erasotzen du egoera berria; konponbidearen aukerari kalte izugarria eraginez.

Guzti horrengatik udal honek ondoko ebazpenak onartu nahi ditu:

- 1.- Zizurkilgo Udalak Herriraren kontra burutu den operazio poliziala eta atxilotetak herri hone gehiengoari eta konponbide prozesuari egiten zaizkion eraso gisa ulertzen dituela azaldu nahi du.
- 2.- Zizurkilgo Udalak Herriraren kriminalizazioa helburu izan dezaketen ekimenak bertan behera utzi eta atxilotutakoen berehalako askatasuna eskatzen du.
- 3.- Zizurkilgo Udalak euskal presoen euskal herriratzea eta bere eskubide guztien aldarrikapena bere egiten du, giza eskubide guztien errespetuaren alde dagoen bezalaxe. Norabide horretan larunbat honetarako deituta dagoen manifestazio nazionalarekin bat egiten dugu.
- 4.- Presoen eskubideen errespetuaz gain, gatazka politiko eta armatuaren parte diren gobernu, alderdi eta eragile guztiei prozesuari etengabeko ekarpena egin eta jarrera eraikitzearen bitartez laguntzea eskatu nahi diogu.

Euskal Herrian, 2013ko urrian